

MEREZIMENDUEN BEHIN-BEHINEKO BAREMOA

NOLA AURKEZTU ZUZENKETAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Unibertsitateaz kanpoko irakasleak egonkortzeko ezohiko prozesuak

BERRITASUN GARRANTZITSUAK

Oraingo honetan, **formulario bakar batek** balioko du aparteko **lau egonkortze-prozesuetako** edozeinetako akatsak edo hutsuneak zuzentzeko:

- Irakasleen kidegoetako aparteko merezimendu-lehiaketa, 2022 (KML)
- Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa, 2022 (KOL)
- Atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasleen aparteko merezimendu-lehiaketa, 2022 (AHLML)
- Atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasleen aparteko oposizio-lehiaketa, 2022 (AHLLOL)

Horietako batean nahiz gehiagotan aurkeztu bazara, zuzendu beharreko elementu guztiak fitxa bakar batean agertuko dira, eta **dokumentazioa behin bakarrik** aurkeztu beharko duzu:

Nire zuzenketak

📌 Jarraian, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietan zuzendu daitezkeen zuzenketa guztiak ageri dira. Aurkeztutako eskaerak kontsultatzeko, [Erregistro Orokor Elektronikoan](#) sar zaitezke.

▼ Deialdia: COC Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa 2022

Zuzenketak 0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / GAZTELANIA zerrendan:

- Tituluak
 - "DIPLOMA DE EDUCADOR SOCIAL" titulazioan: Aurkeztutako titulua ez da ofiziala Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT)

▼ Deialdia: CMC-Irakasleen kidegoetako aparteko meritu-lehiaketa 2022

Zuzenketak 0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / GAZTELANIA zerrendan:

- Tituluak
 - "DIPLOMA DE EDUCADOR SOCIAL" titulazioan: Aurkeztutako titulua ez da ofiziala Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT)

Pantaila honetan, **zuzenketa** arrazoiak ikus ditzakezu, izena eman duzun deialdi bakoitzaren arabera sailkatuta.

Lehen informazio kutxa horren azpian, bai zuzendu beharreko atalak, bai dagozkien dokumentuak gehitzeko dauden kutzak ikusiko dituzu.

Aurreko deialdiekiko alde garrantzitsu hori nabarmendu ondoren,

HAS GAITEZEN!

Lehenik eta behin, ziurtatu akatsak zuzentzeko **aurkeztu nahi duzun dokumentazioa BAINO EZ duzula prestatzen** (soilik aurkeztu behar duzu eskatu zaizuna). Zerbait alegatu edo erreklamatu nahi baduzu, gaitutako testu-kutxa erabil dezakezu hori adierazteko, edo **aparteko dokumentu bat** erantsi.

Garrantzitsua da azpimarratzea **inskripzioaren unean alegatu ez diren merezimenduak ezin direla aurkeztu** prozesuaren fase honetan, eta, beraz, ez direla inola ere zenbatuko.

Dena prest duzunean, eskabidea bete dezakezu **“Tramitatu”** botoia sakatuz:

TRAMITAZIOA

Zuzenketa / behin-behineko baremoaren erreklamazioa ^

Epea: 23/03/20 - 23/03/31

Emandako baremoarekin ados ez bazaude, erreklamazioa aurkez dezakezu "Tramitatu" botoiaren bidez.

Erreklamazioa/zuzenketa egin aurretik, komeni da agiri hauek kontsultatzea:

- **Merezimenduak zuzentzeko gida**
- **Merezimenduak zuzentzeko akta**

Honako egiaztagiri hauek erabil daitezke:

- Ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa
- Cl@ve

TRAMITATU

Botoia sakatu ondoren, urrats hauek egin beharko dituzu:

1. Zeure burua **identifikatu behar duzu**, bide hauetako bat segituz:

- Ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa
- Cl@ve sistema

Erregistro Orokor Elektronikoa

Zerbitzuan sartzeko identifikazioa

© asteartea 2023ko martxoaren 21a 10:45



Ziurtagiri digitala edo eNANA



Cl@ve kredentziala

Internet bidezko tramiteetarako laguntza

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua 

Laguntza informatikoa:
8:00-17:30 h. Ostiraletan, uztaillean eta abuztuan, 8:00-15:00 h
Tel: +34 948 013 555 soportec@navarra.es

Europar Batasuneko herritartasuna izanez gero (Espainiakoa ez dena), Cl@ve sistema erabil dezakezu zeure burua identifikatzeko, “**EBko herritarrak**” bertsioan:

  [¿Qué es Cl@ve?](#) [Ayuda](#)

Elija el método de identificación

Si no transcurren más de 60 minutos entre autenticaciones y llamadas a Cl@ve, se le autenticará automáticamente de forma transparente.



Cl@ve PIN

Acceder >

Para usarlo es necesario [registrarse](#)



Cl@ve permanente

Acceder >

Para usarlo es necesario [registrarse](#)



Ciudadanos UE

Acceder >




© Gobierno de España · Cl@ve
v2.6.18

2. Joan hurrengo pantailara, eta berretsi eskabidea zer izapidetarako egiten ari zaren (eremuak aurrez zehaztuta daude), eta sakatu “**Hurrengoa**”:

Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietako baldintzak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

Eskabidea bete

Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCION Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: (*):

Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietako baldintzak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

1. - Eskabidea bete

2. Datu pertsonalak

3. Zuzenketa/erreklamazioa

4. Sinatu eta igorri

5. Egiaztageria

3. Hori sakatutakoan, zure **datu pertsonalak** agertzen dituen pantailara joanen zara. Aukera ezazu eskabidea zure izenean edo beste pertsona baten izenean egin nahi duzun.

Ez duzu markatu behar “Jaso telematikoki erantzuna”, prozesu honetan **ez baita zuzeneko jakinarazpenik egiten**; prozesuaren emaitza guztiak deialdi bakoitzaren **web-fitxan argitaratuko dira**.

Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietako baldintzak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordezkari edo beste baten ordezkari aurkezten duzun: (*) Nahitaezko datuak.

Neure izenean Honako honen ordezkari

Marka ezazu erantzun telematikoa jaso nahi baduzu. Beharrezkoa da [Helbide Elektronikoa](#) [Gaitua](#) izatea eta Nafarroako Gobernuaren prozeduretarako harpidetua egotea. Oroitu pertsona eta erakunde batzuk behartuak daudela jakinarazpenak telematikoki jasotzera.

Eskabidearen aurkezlea:

NAN/IFZ/IFK/eIDAS (*):
Izena (*):
Lehen deitura (*):
Bigarren deitura:
Helbide elektronikoa:
Telefonoa (*):
Kalea (*):
Zenbakia:
Eskailera/Solairua:
Herraldea (*):
Probintzia:
Herria (*):
Posta Kodea (*):

Aurrekoa

Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete

2. - Datu pertsonalak

3. Zuzenketa/erreklamazioa

4. Sinatu eta igorri

5. Egiatagiria

4. "Hurrengoa" sakatzean, hasieran adierazi dugun pantaila ikusiko duzu. Bertan, deialdi bakoitzeko adierazten diren bazterketak ikusiko dituzu:



Nire zuzenketak

📌 Jarraian, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietan zuzendu daitezkeen zuzenketa guztiak ageri dira. Aurkeztutako eskaerak kontsultatzeko, [Erregistro Orokor Elektronikoan](#) sar zaitzake.

▼ Deialdia: COC Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa 2022

Zuzenketak 0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / GAZTELANIA zerrendan:

- Tituluak
 - "DIPLOMA DE EDUCADOR SOCIAL" titulazioan: Aurkeztutako titulua ez da ofiziala Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT)

▼ Deialdia: CMC-Irakasleen kidegoetako aparteko meritu-lehiaketa 2022

Zuzenketak 0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / GAZTELANIA zerrendan:

- Tituluak
 - "DIPLOMA DE EDUCADOR SOCIAL" titulazioan: Aurkeztutako titulua ez da ofiziala Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT)

Taula hori informaziorako baino ez da, eta zuzenketa bakoitza zein deialditakoa den adierazten du. Bertan, deialdi bakoitza zabaldu edo uzurtu besterik ezin duzu egin.

Taula horren azpian, **dagozkion atalak** agertuko dira, zuzendu beharreko dokumentazioa gehitu ahal izateko. Adibidez:

Zuzenketa

Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzea

Merezimenduak

📌 Nafarroako Foru Komunitatean irakasleak egonkortzeko deialdietako eskabideetan aurretik aurkeztutako dokumentu guztiak kontuan hartuko dira egungo eskabiderako, eta ez da beharrezkoa izanen dokumentazio hori berriro aurkeztea.

Dokumentazioa

📌 Aukeratu aurkeztu nahi dituzun fitxategiak eta sakatu "Erantsi" botoia.

Titulazio akademikoa

Ninguno archivo selec.

Zure zuzenketaren bat behar duten atalak bakarrik agertuko dira.

Iruzkinen bat egin nahi baduzu, horretarako dagoen testu-kutxa erabil dezakezu (gehienez 3.000 karaktere), edo **dokumentu bakar bat** erantsi zure oharrekin:

Zuzenketa/argibidea

Edozein zuzenketa edo argibide ondoko testu-kutxan egin dezakezu. Nahi izanez gero dokumentu bat erantsi dezakezu.

Aurkeztutako beste agiriak

Ninguno archivo selec.



Urrats hori amaituta, sistemak zuzenketa eskabideari buruzko datu guztien **laburpena** eskaintzen du:

Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzeko deialdietan merezimenduak zuzentzeko eskaera

Sinatu eta igorri

Nork aurkeztua

NAN/IFZ/IFK (*):

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Honako hau ordezkatzuz

NAN/IFZ/IFK (*):

Izen-deiturak/Sozietatearen izena (*):

Lehen deitura:

Erantzun telematikoa jasotzeko eskaera: Ez da eskatu erantzun telematikorik.

Jasotze-agiriaren zenbakia

Jomuga: DEPARTAMENTO DE EDUCACION/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: Solicitud de subsanación de méritos en las convocatorias de estabilización de personal docente no universitario

Berriazko datuak:

Deialdia: Unibertsitatez kanpoko irakasleak egonkortzea

Eskatzen den titulua

- Muestra.pdf

Aurkeztutako dokumentuak

Título - Muestra.pdf

Datu babesari buruzko informazioa

Jarraitu beharreko urratsak

- Eskabidea bete
- Datu pertsonalak
- Zuzenketa
- Sinatu eta igorri**
- Egiaztatzea

Erantsitako dokumentuak eta/edo aurkeztutako erreklamazioa aztertu ondoren, ados bazaude, behealdera jo beharko duzu. Bertan, **lauki bat markatu beharko duzu**, aurkeztutako dokumentazioaren egiazotasun baldintzak **irakurri eta onetsi dituzula ziurtatzeko**.



“**Sinatu eta bidali**” botoia sakatuta, eskabidearen azken bidalketa eta erregistro ofiziala eginen dira:

Datu pertsonalen babesa

Nafarroako Gobernutik jakinarazten dizugu nola kudeatuko ditugun eskabide orokor honen datuak eta harekin batera ematen dizkiguzun agirienak.

Nor da zure datuak kudeatzeko arduraduna?

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia. Zuzendaritza nagusi hori Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan dago.

Zer egingen dugu zure datuekin?

Zure datuak Nafarroako Gobernuaren aplikazio honetan sartuko ditugu: Agirien Sarrera-

Onartzen dut eskabide hau baldintza hauen arabera aurkeztea.

Aurrekoa

Sinatu eta igorri

Sistemak frogagiri bat erakutsiko dizu. **Frogagiri** hori PDF batean gorde edo inprima dezakezu (prozesua egin duzula eta behar bezala bukatu duzula egiaztatzen du).

BUKATU DUGU!

Une horretatik aurrera **aztertuko da** zuzenketak egiteko aurkeztu duzun dokumentazioa, eta behar dena egingen da. Ondoren, behin betiko baremoa **argitaratuko da**.

Zalantzarik al duzu? Kontsultatu hurrengo orrialdea.

KONTSULTARAKO KONTAKTUAK

- Baremoko **2. atalarekin (prestakuntza akademikoa) eta 3.2 atalarekin (etengabeko prestakuntza)** lotutako edozein zalantza argitzeko, gurekin harremanetan jar zaitezke 08:00etatik 14:30era, telefono hauetara deituta:
 - 848 421 855
 - 848 421 856
 - 848 421 974
 - 848 428 444
 - 848 421 446
 - 848 428 489
 - 848 428 389
 - 848 428 435
- Baremoko **1. atalarekin (aurretiko irakaskuntza esperientzia) eta 3.1 atalarekin (oposizioa gainditzea)** lotutako edozein zalantza izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke 08:00etatik 14:30era, telefono hauetara deituta:
 - 848 426 069
 - 848 426 996
 - 848 425 380
 - 848 426 566
 - 848 424 522
 - 848 424 523
 - 848 424 524
 - 848 425 618
- Nahiago baduzu harremanetan jarri posta elektronikoaren bidez, helbide honetara jo dezakezu:
 - seleccion@navarra.es

GARRANTZITSUA: prozesuan zehar **eskabidea aurkeztea galarazten duen erroreren bat** agertzen bada, egin ezazu errorearen pantaila-argazki bat eta igor ezazu mezu elektroniko bat afera honetarako gaitutako euskarri teknikora eta hartan adierazi zer dakizun erroreaz, pantaila-argazkia, zer ordutan aurkeztu den eta NANA. Zure eskaera aztertuko da eta erantzun bat jasoko duzu.

Helbide elektronikoa: soportec@navarra.es Telefonoa: 948 013 576

Jendea hartzeko ordutegia: astelehenetik ostegunera, 08:30etik 17:30era. Ostiraletan: 08:30-15:00.